

PRENTSA OHARRA / 2026-3-12

Euskadiko Lanbide Heziketak eta Euskadiko Parke Teknologikoak batxilergoko 288 ikasle bildu dituzte Vitoria-Gasteiz Campusean enpresetako lan-aukerak erakusteko

- **FPParke ekimena Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren eta Innobasqueren STEAM Euskadi zigiluarekin aitortu da, eta batxilergoko ikasleei enpresa teknologikoen aukerak erakustea du helburu.**

2026ko martxoaren 12a. HETEL eta Ikaslanek, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Lanbide Heziketako ikastetxe publiko eta itunpekoen sareek, eta Euskadiko Teknologia Parkeak gaur Vitoria-Gasteiz Campusean FP/Parke Foroa ospatu dute, Parke Teknologikoko enpresetan dituzten lan aukerak erakusteko. Ekimenak 6 ikastetxetako 288 ikasle bildu ditu eta Parkeko 10 enpresa bisitatu dituzte.

Bertaratuak Auditorioan aurkeztu eta ongietorri instituzionala egin ondoren, mahai-inguru bat egin da ikasle ohien hitzaldi eta esperientziekin, bokazio zientifiko-teknologikoei eta Lanbide Heziketa enpresa teknologikoekin konektatzearen garrantziari buruz.

Bigarren zatian, ikasleek 10 enpresetakoren bat bisitatu dute: AJL OPHTALMICS, SPC, LEK INGENIERIA Y SERVICIOS, ALESTIS, AEG POWER SOLUTIONS IBERICA, BIC ARABA, GUASCOR, BASQUEVOLT, CTA eta DEL VALLE AGUAYO. Bertan, erakundeek egunerokoan garatzen duten jardura nolakoa den erakutsi diete gazteei, baita Lanbide Heziketaren bidez industriaren puntako sektoreetan hazkunde profesionala izateko dauden aukerak ere.

LH/Parkearen helburua ikasleek lanbide zientifiko-teknologikoekiko duten interesa piztea da, Lanbide Heziketaren ikuspegitik. Horretarako, Batxilergoko lehen mailako gazteei zuzendutako jardura-ibilbide bat antolatzen da, etapa akademiko horretan hartu behar baitituzte beren etorkizunari buruzko erabakiak, beraien etorkizuneko lana oinarri hartuta. Jardunaldiaren helburua Lanbide Heziketako ibilbideek eskaintzen dituzten indarguneak eta lan-aukerak ezagutaraztea izan da. Bestalde, Euskadiko Parke Teknologikoan Vitoria-Gasteiz Campusean kokatutako enpresek eta zentro teknologikoei beren jardura eta LH STEM profil jakin batzuen beharra erakutsi dute.

Lanbide Heziketako talentuaren bila

Euskadiko Parke Teknologikoan lan egiten duten 23.600 pertsonetatik 6.000 baino gehiago Lanbide Heziketatik datoz. Lanbide Heziketako profilak dituzten lehentasuneko sektoreak honako hauek dira: IKTak, Elektronika, Energia eta Ingurumena, Biozientziak eta B+G. Hala, Energian eta Ingurumenean, pertsonen % 37k Lanbide Heziketa ikasi du; Elektronikan, % 36k; IKTetan, % 33k; eta Biozientzietan, % 28k. 2022-2024 aldian, guztira 1.917 pertsona kontratatu ziren Euskadiko Parke Teknologikoan, eta horietatik 765 Lanbide Heziketako ikasketak zituzten, kontratazio berrien ia % 40a. Azken urteotan, kontratazio guztien eta Lanbide Heziketako joera goranzkoa izan da, eta datozen urteetan joera positibo horri eustea aurreikusten da. Horrek erakusten du oso garrantzitsua dela batxilergoko ikasleek Parke Teknologikoko lan-irteerak eta enpresak ezagutzea, baita LHK ematen dizkien aukerak ere.

Ekimenean HETEL eta IKASLAN elkarteen barruan dauden Euskadiko Lanbide Heziketako ikastetxeek laguntzen dute – guztira 100 ikastetxe eta 43.000 ikasle baino gehiago biltzen dituzte -, Euskadiko Parke Teknologikoarekin batera, 23.600 profesional inguru enplegatzen dituzten 670 enpresa baino gehiagorekin.

Informazio gehiago:

Euskadiko Parke Teknologikoa
Prentsa Saila
prentsa@parke.eus
T 94 403 95 00